Hirurok

Arantxa Iraola
Adopzio bidezko ama 2013tik
Alabaren jatorria, Errusia

Regina:

Elkarrekin egiten ari garen bizialdiko lehen egunak ziren. Umetxo urduri bat zinen zu; abiarazitako bide hari neurria hartzeko ahaleginetan ari ginen guraso zalantzatiak gu. Atzerri hartan –ez genuen inoiz deserri sentitu: zure ordura arteko etxea zen: zure ordurarteko mundua–, lehen aldiz adierazi zenuen hirurok batera egin behar genuela ordutik aurrerako bidea. Zeure-zeurea izan zen keinua. Azenarioak erosten ari ginen; bi hartu genituen, eta, kexati, bat falta zela adierazi zenuen: "Pápa?". Arrazoi zenuen. Hiru ginen ja: hiru azenario behar ziren.

Gerora ere, euskaraz trebatzen hasi zinenean, berehala nabarmendu zenuen hitza: 'Hirurok'. Eta, hain justu ere, hiru haridun txirikorda bat osatzen ahalegindu zara urteotan, gurekin batera. Dorpeegi jardun dugun egunak izan dira: barka, gehiago merezi zenuen. Korapiloak ere azaldu zaizkigu. Baina zuretzat abaro izateko borondatea beti hor egon da, eta zu ere habia izan zara guretzat: ze ederra izan den zu hazten ikustea.

Gauza garrantzitsu asko falta zaizkigu. Ebatsita egoten dira gurearen moduko bizipenetan. Zure lehen haurtzaroa mundu lauso bat da: zure bi begi beltz horiek zer ikusi zuten, zenbat negar egin zuten eta irri zerekin egin zuten irudikatzen zenbatetan ahalegindu ote garen. Zure zelula bakoitzean txertatuta dagoen sorburua, halaber, izen bakanak dira zure adopzioari buruzko paperetan: oinazetsuegia da urruntasun hori. Era berean eta, batez ere,

gabezia handiena da maitasun erabatekoaren babes iraunkorra sentitzerik ez zenuela izan sortu zinen egun beretik.

Eta, hala ere, hemen gaude; txirikordako ile xerlo guztiak behar bezala lotu ezin baditugu ere, familia bat gara, eta une zoragarri asko izan ditugu elkarrekin. Zure barnean utz dezakegun ondarerik onena horixe dela sentitu dugu beti: urteotan gurekin eta familiako gainerakoekin bizi izan ahal izan duzun maitasuna, eta beti-beti-beti zure ondoan egongo garen konbentzimendua.

Batez ere, gabezia handiena da maitasun erabatekoaren babes iraunkorra sentitzerik ez zenuela izan sortu zinen egun beretik

Zorionez, izan dugu laguntza bidean: Ume Alaiaren ekarpena, esaterako, ezinbestekoa izan da. Beti presente izan ditugu, adibidez, adopzio aurreko tailerrak. Emandako ikasbideak ez ziren beti erosoak, gure asmo onen atzeko arantzak erakusteko ere baziren. Baina behar-beharrezkoak izan ziren.

Hasi zara zure bidea egiten. Pixkanaka, hegan egiten utzi beharko dizugu. Urteotan elkarren abaroan erein dugun horrek lagunduko dizun esperantza dugu. Egin ditugun ahalegin guztien helburu nagusia horixe izan da.

Maite zaitugu.

Beste ezer baino gehiago.

Aita eta ama.